

seguru asko emakumeen komikia izango da ardatza. Horrelako ekimenak ezinbestekoak dira gure komiki mundurako.

Komikeri deritzon bloga ere baduzu. Bai, euskal komikiari buruzko bloga da, bertan komikien inguruko berriak, elkarrizketak, iritziak eta hausnarketak zabaltzen ahalegintzen naiz. Euskal komikia zertan den jakin nahi duenak bertara jo dezake.

Komikia zabaltzeko zer gehiago egin genezake? Eskolan zeozer gehiago egin liteke, gaztetxoan artean. Baina, kontuz ibili behar da, ze kontu pedagogikoak ez zaizkie batere interesatzen. Gurean komikia *underground* izan denean, 80ko hamarkadan

bezala, hobeto ibili izan da. Edo, komentatu duguna, han hemenka agertu diren komikien irakurle klubak, irakurketa proposamenak eginda iritziak elkartrukatzeko balio dutenak. Horrek guztiak komikien irakurketa susta lezake.

Eta orain zer duzu esku artean? 2015 honetarako *La trilogia del ambar* izeneko proiektua dugu eskuarte. Wester estiloko istorioak dira, baina protagonista Ötzi da, paleolito garaiko gizona, Alpetako glaziar batean agertu zena, akabatu egin zutelako zantzuekin. Dagoeneko *Por un puñado de ambar* argitaratu dugu. Horrezaz gain, istorio arin batzuk ditut gogoan, Nevadako euskal artzainen gainekoak, eta horrelakoak.



Elkarrizketa: Alazne González

Txikitan Tintin, Asterix eta Obelix, Mortadelo y Filemón, Ipurbeltz edo Mafalda irakurtzen igarotzen zituen Dani Fanok (Donostia, 1968). Gaur egun donostiarrak Goscinny, Miguelanxo Prado, Quino, Enki Bilal, Arthur Rackham... bezalako autoreak miresten ditu. Zientzia fikzioa oso baieztatzen duen arren, denetariko komikiak irakurtzen dituela aipatzen du komiki eta irudigile gipuzkoarrak. Bere lanak Ipurbeltz, Ardibeltza, Xabiroi edota Elhuyar Zientzia Aldizkaria ikusi ditzakegu.

Euskal komikigintza bere urrezko aroan bizi daitezkeela esan genezake. Baina, zeure aburuz, zer nolako pausoak eman beharko lirateke euskal komigintzaren osasun ona bermatzeko eta suspertzeko? Ez dut uste inondik ere euskal komikigintza bere urrezko aroa bizitzen ari denik. Gauzak gertatzen ari dira, hainbat egitasmo martxan dago, baina urteroko produkzioari begiratzen badiogu, eta horri lotuta, egileen egoera profesionalari, ezin da esan garai bereziki ona bizitzen ari garenik. Izan dira okerragoak, baina hobeak ere, segur aski. Komikigintza sustatzeko komikia argitaratu behar da, herriko fanzine autogestionatutik, Xabiroi bezalako aldizkari profesionaleraino. Lehiaketak, erakusketak, azokak,

eta abarrak ongi daude, lagungarri dira, baina komikiak ez baldin badira argitaratzen jai daukagu. Hor asko izango lukete esateko Euskal Herriko argitaletxeek. Neurri batean, apustu kontua da.

Makina bat alditan komikigintza zinema edo arte ederretako anai txirotzat hartzen bada ere, komikia hezkuntza-osagarri bat da, zeuk argi erakutsi duzu Elhuyar Zientzia aldizkarian egiten dituzun biñetekin. Zeure ustez, zein aukerak dituzte euskal marrazkilari eta komiki-gidoilariak hezkuntza arloan? Komikia hezkuntza-osagarri izan daiteke, edozein komunikazio ekintza hezkuntza-osagarri izan daitekeen bezala. Adierazpen artistiko mota bat da eta hori (eta beste gauza asko) izango



da beste edozein adierazpen artistiko izan ahal den bezala. Nik ez dut marrazten hezkuntzari begira. Elhuyar dibulgazio zientifikorako aldizkaria da eta nik kontrapuntua jartzen diot metodo zientifikoari. Aldizkarian agertzen diren gaiei erantzun surrealista edo zoroa ematen saiatzen naiz. Horrexegatik sailaren izena: *Satorrak ilargian...* eta ilargiko kraterrek, meteoritoen eraginez sortu izan ordez, satorrek egindakoak balira? Edozer gauza eta umorea lagun onak beharko lukete izan. Umorea beharrezko ikusten dut edozertarako eta edozein esparruan. Hezkuntzan ere, jakina.

Xabiroi-arekin (Ikastolen Elkarteko euskara sustatzeko komiki-aldizkariak <http://www.ikastola.eus/xabiroiharpidetza>) harrera ona izan ez ezik, hainbat sari ditu ere, azkena 2014. urteko Getxoko Komiki Azokan. Zerk suposatu dizu Xabiroi bezalako proiektuan lan egitea? Xabiroik bete du nire eguneroko lan jardunaren zatirik handiena azken hamar urteotan, eta, logika hutsez, asko suposatu du. Egile bezala lasai lan egiteko aukera eta hainbat proiektu aurrera eramateko aukera. Bestela, komikigile eta komikizale gisa, uste dut Xabiroiren ekarpenik garrantzitsuen aldizkariaren inguruan sortu den egile sarea izan dela. Lehen sakabanatuak geunden, eta elkarren berri tarteka besterik ez genuen izaten. Xabiroi sortu zenetik maiz biltzen gara aldizkariaren inguruan eta horrek fruituak eman ditu Xabiroiz

haratago hainbat eta hainbat egitasmo eta elkarlanetan. Pizgarri handia izan da Xabiroi.

Estatu Batuetako zein Frantziako komikigintzako tradizioan gidoilariak oso baloratuta daude.

Eta Xabiroin bikoteka jarduten duzue maiz. Zer nolako ekarpenak eman ditu tandem moduan lan egiteak? Ez beti, baina egia da askotan aritu garela bikoteka lanean. Komikigintza bakarkako lana bezala ulertzea kultura espainoletik jaso dugu, eta zuzenki lotuta dago industria egonkor eta sendo bat ez izateari. Estatu Batuetan eta kultura frantsesdunean industria handi bat egon da, hainbat urtez, eta hor bai ulertzen dela koimikigintza talde lana bezala. Hemen, zoritxarrez, estatuko ohiturek kutsatuta, marrazkilarien mundu bat bezala ikusi izan da, baina hori gure okerra izan da. **Harkaitz Cano, Eider Rodriguez, Iban Zaldúa, Unai Iturriaga** eta horrelako beste hainbat idazleei eta sortzaileei komikiak egiteko gonbita luzatzea Xabiroik egin duen ekarpenik interesgarrienetako bat izan da. Alde batetik, komikigintza jende hori erakartzeak, begi berriak komikira erakartzea eragin du, eta prestigio gehigarri apur bat eman digu. Baina, batez ere, istorio asmatzaile trebeak jarri ditugu gurekin lanean eta istorio zoragarriak asmatu dituzte. 2012an, haur eta gazte literaturari dagokion sailean, Euskadi Literatur Saria eman zioten lehen aldiz komiki bati, **Iban Zaldúa** eta **Julen Ribasen Azkengaraipena** Xabiroiko obrari. Hori duela hainbat urte pentsaezina zen.

